

IRURAKO EKINTZA PLANA

LE1. INGURUMENA KALTETU GABE, TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEKO GARAPEN EKONOMIKOA BULTZATU

P.1.1. Dibertsifikazioa bilatuz, enpresa ekimen berriak babestu eta sustatzeko programa

E.1.1.1. Herrira industria garbiak edo ingurumen inpaktu baxua duten industriak erakartzeko aukeren analisia egin.

E.1.1.2. Enpresa ekimen berriak sortzeko eta daudenak mantentzeko laguntza eskaini Tolosaldea Garatzen Agentziako zerbitzuen bidez.

P.1.2. Lehen sektorearen sustapen ekonomikorako eta babeserako programa

E.1.2.1. Hirigintza planeamendu berria dela eta, galtzen diren nekazal lurzoruen kokapen alternatiboak bilatu.

E.1.2.2. Irurako basogintza sektorean baso kudeaketa jasangarria bultzatu, batik bat udalaren jabegoko basoetan.

E.1.2.3. Labeldun produktuak/ produktu ekologikoak/ kalitatearekin loturiko ziurtagiridun produktuen ekoizpena bultzatzen jarraitu. (*Tolomendi*)

E.1.2.4. Nekazal lurren inguruan egoera txarrean aurkitzen diren hesiak konpontzeko heskaien (setos vivos) ezarpena sustatu, esaterako autobidearen alboko Aldundiaren ardurapean eta egoera kaxkarrean aurkitzen diren hesietan. (*Foru Aldundia*)

E.1.2.5. Gazteak nekazaritza munduan sartzeko aukerak aztertu Tolomendi Tolosaldeko Landa Garapen Elkartearekin elkarlanean.

E.1.2.6. Abeltzaintza intentsiboa ez den nekazaritza ekologikoa sustatu (*Tolomendi*)

E.1.2.7. Ingurumen jardunbide egokiak nekazal sektorean sustatu (*Tolomendi*).

P.1.3. Udalerrian merkataritza sektorea indarberritzeko programa

E.1.3.1. Tokiko merkataritza mantendu eta indartuko duten politikak martxan jarri. (*Tolosaldea Garatzen*)

E.1.3.2. Informazio kanpainen bidez tokiko kontsumo iraunkorra sustatu herritarren artean (esaterako, kanpora joateak suposatzen duen guztizko gastu handiagoa mugikortasuna kontutan izanez gero, etab.). (*Tolosaldea Garatzen*)

P.1.4. Turismo garapen eta sustapenerako programa

E.1.4.1. Turismoaren sustapenerako ekintzen garapena beti ere, udalerriek garapen iraunkorraren bidean turismoa bultzatzea beharrezkotzat jotzen badu:

- a) Irurako turismo baloreak identifikatu eta ezagutarazteko informazio materiala prestatu (eliza, trinketea adib.)
- b) kanal berriak erabiliz (gidetan azaltzen, igandetako gehigarriak, etab.) Kalitate handiagoko eta selektiboagoa den turismoa indartuko dutenak

E.1.4.2. Udalerrian kanpoko jendearentzat alojamendu motaren bat sustatu.

E.1.4.3. Tolosaldea mailan eginiko Turismo Plana iraunkortasun irizpideak txertatuz garatu (*Tolosaldea Garatzen*).

P.1.5. Pertsona guztien lan-bideratze eta aukera berdintasunerako programa

E.1.5.1. Udal kontratazioetako baldintzetan kalitatezko enplegurako irizpideak barneratu eta herriko langabetuak kontratatu, batik bat gazte eta 44 urtetik gorako emakumeak.

E.1.5.2. Udal langileen artean egonkortasuna, soldata duinak eta prekarietatea murriztea bultzatu, eta beti ere, azpikontratatzeko ekiditen saiatu.

E.1.5.3. Herriko enpresetako kontratazioetan lehentasuna bertakoei ematen saiatu.

E.1.5.4. Herriko langabetuak kontratatzekeo garaian langilearen prestakuntza egokiena izatea sustatu eta gertuko jarraipena egin

E.1.5.5. Garapen Agentziako zerbitzuetako ekintzen inguruko informazioa zabaldu (prestakuntza ikastaroak, enpleguarekin erlazionatutako zerbitzuak eta bere funtzioak, beste inizatibak...) langabezia dauden sektoreetara bideratuak. (*Tolosaldea Garatzen*)

LE2. BIZTANLERIAREN ONGIZATEA ETA BIZI KALITATEAREN HOBEKUNTZA SOLIDARIOA SUSTATU

P.2.1. Biztanleriaren beharrak aseko dituen etxebizitza politika iraunkorra garatzeko programa

E.2.1.1. Zabalgune zonan etxebizitza berrien sustapena burutu, herrikoei lehentasuna emanaz eta % 30 inguru BOE eta tasatuen eskainiz.

E.2.1.2 Aldapagain eta Izaskun manufaktura guneeetan etxebizitza berriak eraiki.

E.2.1.3. Herritarrek etorkizunera begira Irurako udalerria zenbat eta nola hazi behar duen hausnartzeko/eztabaidatzeko eta etxebizitzaren itxura eta urbanizazioa modu egokiak finkatzeko bilera irekiak antolatu.

E.2.1.4. Hutsik dauden etxebizitzak erabilgarri izan daitezen neurriak hartu (errehabilitazio bidez, alokairu merkatura bideratuz...).

E.2.1.5. Irisgarritasun zein osasungarritasun-baldintzak betetzen dituzten baxu komertzialak eta atikoak identifikatu eta etxebizitza moduan irteera ematea baimenduko duten mekanismoak martxan jarri.

E.2.1.6. Babestutako alokairuzko etxebizitza eskaintza bultzatzeko aukerak aztertu.

E.2.1.7. Etxebizitzak birgaitzeko eta erosotasuna handitzeko programak sustatzen jarraitu eta zentzu honetako ekintzak mankomunitate mailan martxan jartzeko aukerak aztertu.

E.2.1.8. Udalerrian urgentziatzeko pisua erabilgarri egoteko egokitu eta hornitu.

E.2.1.9. Eraikitzen diren etxebizitza berrietan pixkanaka ingurumenarekiko begirunetsuagoak diren elementuak barneratzen joatea

E.2.1.10. Herriko 3. adineko pertsonen bideratutako etxebizitzaren bat edukitzeko aukerak aztertu.

P.2.2. Hezkuntza zerbitzuak sortu eta garatzeko programa

E.2.2.1. Irurako Ikastola berria eraiki eta ikasleak hezten nahiz jendartearen integrazion ez ezik, herri txikiak kulturaren behar bezala estimatu dezaten ere saiatu.

E.2.2.2. Eskolaz kanpoko hezkuntza jarduerak bultzatu udalaren protagonismo mantenduz eta herritarrena areagotuz.

E.2.2.3. Eskolaz kanpoko hezkuntza proiektuak bultzatu, udaleku irekiak...

E.2.2.4. Irurako familiek beren seme-alaben hezkuntza zerbitzuagatik gutxiago ordaintzeko mekanismoak aztertu.

E.2.2.5. Ikastolan ingurumena eta iraunkortasunarekin zerikusia duten jarduerak eta ekintzak antolatzen jarraitu eta indartu, esaterako Eskolako Agenda 21aren ezarpena bultzatuz. (*Udaltalde mailan*)

P.2.3. Udalerriko osasun eta gizarte zerbitzuen baldintzak egokitzeko eta garatzeko programa

E.2.3.1. Adindu, elbarritu eta etxean menpeko pertsonak dituztenengana zuzenduriko gizarte zerbitzuen laguntza mantendu eta ahal den neurrian sendotu.

E.2.3.2. Jubilatutako mugiarazteko ekintzak martxan jarri, esaterako, Irurako 3. adineko zentroaren funtzionamendu egoki baten alde egin (dinamizatzailea, beste herrietako esperientziak...), zentroa suspertzeko helburuarekin.

E.2.3.3. Herrian pediatria zerbitzua izateko eskariari jarraipena egin eta Irurako biztanleak, Osakidetzari begira, herrian izen ematea bultzatu.

E.2.3.4. Farmazia egun osoan zabalik edukitzeko gestioak egin.

E.2.3.5. Ernio-behea mailan Drogomenpekotasuneko Prebentzio Plan bat burutu (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

- Ikastolarekin prebentzio orokorra landu (Udala-ikastola)

E.2.3.6. Gizarte zerbitzuen alorrean, herritarrek egun dituzten eta etorkizunean izango dituzten beharren azterketa bat burutu zerbitzuen inguruan aurreikuspen bat burutu ahal izateko (*UT21 Ernioaldea*)

P.2.4. Aisia, kultura eta kirol zerbitzuak eskaintzeko programa

E.2.4.1. Herrian antolatzen diren kultur jarduera ezberdinen parte hartzea hobetu eta handitu, herritarren inizatibak sustatuz

E.2.4.2. Gazte eta umeei dituzten kultura eta aisialdi jarduerak eta ekipamenduak sustatzen jarraitu, beharrezkoak diren heinean.

E.2.4.3. Kultur jarduera ezberdinak (antzerkia, kontzertuak...) eskaini ahal izateko ondo egokitutako areto balioanitz bat eraiki.

E.2.4.4. Kultur elkarten sorreraren alde egin, erraztasunak ezarri.

E.2.4.5. Kultur, kirol eta beste jarduera ezberdinak urte osoan zehar antolatu.

E.2.4.6. Herriko liburutegia bultzatu, esaterako kultura audiobisuala sustatuz, propaganda ona egiten, liburutegia eta kuzgunea elkartzeko aukerak aztertzen, etab.

E.2.4.7. Kirol ekipamendua handitzeko dagoen aurreikuspena garatu (frontoia...).

E.2.4.8. Frontoia eta trinketea elkartzeko proiektua aurrera eraman

E.2.4.9. Kirol eskaintza handitzeko zein aukerak dauden aztertu (gimnasioa...)

E.2.4.10. Kirol instalazioetan ingurumenarekiko begirunetsuagoak diren teknologia berriak ezartzen joan pixkanaka eta aprobetxatu sentsibilizazio ekintzak garatzeko.

E.2.4.11. Aire libreko kirol jarduerak egiteko ekipamenduak egokitu

E.2.4.12. Orain arteko ildoari jarraituz, ikastola berria egiteko ekimenei lagundu, ahal den heinean .

E.2.4.13. Loatzo musika eskola mantendu eta ahal den neurrian sendotu.

E.2.4.14. Gaur egun Kzgunearen bitartez eskaintzen den informatika zerbitzuaren egitura eta funtzionamendua etorkizunean mantendu eta indartu, publikotasun ideia kontserbatuz.

E.2.4.15. Eskualdeko kirol beharrak Tolosaldea mailan koordinatu (aire zabaleko igerileku parkeduna ...) *(UT21 Ernioaldea)*

E.2.4.16. Eskualde mailako kirol jarduerak antolatzeko eskualdeko gainontzeko udalerriekin koordinazioan jarraitu eta hobetu. Tolosaldea mailan egingo den azterketa kontutan izanik, nesken kirol praktika sendotzeko neurriak hartu. *(UT21 Ernioaldea)*

E.2.4.17. Kultur programazio eta difusioaren koordinazioa bultzatu *(UT21 Ernioaldea)*

P.2.5. Herrian etorkinen integrazioa eta elkarbizitza sustatzeko programa

E.2.5.1. Haurrik ez duten inmigranteen integrazioa eskualdeko bizitzan sustatu, Irura lotarako herri bilakatzea saihestuz.

E.2.5.2. Inmigranteen ikuspuntu eta benetako beharrak ezagutzea baimenduko duten informazio mekanismoak garatu (inkestak, parte hartze foroak)

E.2.5.3. Eskualde mailan burutzen ari den migrazio inguruko ikerketako emaitzak kontutan eduki ekintzak martxan jartzeko orduan. *(UT21 Ernioaldea)*

P.2.6. Udalerrian euskararen normalizazioa eta hizkuntzen bizikidetasuna bultzatzeko programa

E.2.6.1. Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana garatu eta Udalaren ereduzko irudia bultzatu.

E.2.6.2. Euskara bultzatzen duten gizarte eragileak lagundu (euskarazko komunikabideak, d eredia sustatzen duten irakaskuntza erakundeak eta euskararen normalizazioaren alde egiten duten erakundeak)

E.2.6.3. Gurasoak, batik bat 40-50 urte tartekoak, euskararen erabileran eredu izatea sustatu.

E.2.6.4. Herriko esparru ezberdinetan euskararen erabilera bultzatu (enpresa, merkataritza, etab.).

E.2.6.5. Euskararen kaleko erabilera ezagutu.

E.2.6.6. Helduak eta emigranteak euskalduntzeko eta alfabetatzea errazteko neurriak hartu (ordutegia, koordinazioa...)

E.2.6.7. Eskualdeko euskal komunikabideen sustapena koordinatu eta indartzen jarraitu *(UT21 Ernioaldea)*

P.2.7. Emakumea eta gizonaren arteko parekidetasuna bultzatuko duten politikak sustatu

E.2.7.1. Eskualdeko udalerrietan parekidetasun teknikari partekatu baten beharra hausnartu ondorengo ekintzak garatzeko: (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

- a) Emakumeei zuzendutako lanbide orientazio egokia sustatu.
- b) Emakumeak lan munduan aurkitzen dituen zailtasunei aurre egiteko laguntza zerbitzuak ezarri.
- c) Emakumeak langabezia erregistratzen duten erakundeetan izena ematea animatu.
- d) Etxekoandreen lana ondo baloratu.
- e) Herriko aktibitateetan emakumeen parte hartzea indartu.
- f) Udalean genero perspektiba zeharkako gaia izatea.

LE3. HIRI INGURUNEAREN ETA INGURUMEN ZERBITZUEN HOBEKUNTZA

P.3.1. Uraren zikloaren kudeaketa hobetzeko programa

E.3.1.1. Egungo udalerriko iturburuen egoera eta kalitatea aztertu eta zer egin erabaki, esaterako egungo iturriak kontrolatu eta badaezpada ere funtzionamenduan mantendu larrialdi egoera batean autonomia izateko edota urek beren ibilbide naturalean zehar jaisten utzi.

E.3.1.2. Udalerriko sarean ur galerak minimoak izan daitezen kontrol neurriak hartzen jarraitu (ur galeran inguruko estudio berri bat).

E.3.1.3. Ur kontsumo arduratsu bat sustatzeko sentsibilizazio kanpainak bultzatu. (eskualdean)

E.3.1.4. Kontsumitzen den uraren araberako tarifak ezartzea aztertu.

E.3.1.5. Lorategiak ureztatzeko orduan ur gutxiago kontsumitzen duten teknikak ezarri (euri ura erabiltzeko sistemak aztertu).

E.3.1.6. Saneamendu sarera mota guztietako hondakinak botatzea saihesteko (olioak, plastikoak...) neurriak hartu, kalte handiak sortu eta ondoren ibaira iristen baitira.

E.3.1.7. Uraren Arzetarauak ur hornidurarako exijitzen dituen betekizuna bermatu. (Gipuzkoako Foru Aldundia)

E.3.1.8. Ur zikinen kolektorea eta araztegiaren obrak egin. (*Gipuzkoako Foru Aldundia*)

P.3.2. Energiaren kudeaketa iraunkorra sustatzeko programa

E.3.2.1. EVErekin hitzarmena sinatu udal eraikinetako efizientzia energetikoari buruzko azterketa egiteko.

E.3.2.2. Argiteria publikoaren azterketa bat burutu eta tokian tokiko argi beharrei egokitu, beti ere kutsadura luminikoa saihestuz.

E.3.2.3. Udal eraikinetan energia berriztagarriak sortzeko sistemak ezarri (ikastola berrian).

E.3.2.4. Ikastolan eta udal eraikinetan isolamendu termikora zuzendutako neurriak hartu.

E.3.2.5. Etxebizitzetan energiaren kontsumo arduratsu bat sustatzeko eta teknologia berriagoak eta ingurumenarekiko begirunetsuagoak erabiltzeko informazio kanpainak martxan jarri.

E.3.2.6. Kultur gunen berrian eta herriko eraikin guztietan kontsumo baxuagoko argiteria ezartzea bultzatu.

P.3.3. Hondakinen ingurumen kudeaketa hobetzeko eta kontsumo arduratsua sustatzeko programa

E.3.3.1. Hondakinentzako kontainer kopurua, kokalekua eta egoera (usainak, garbitasuna...) egokienak izatea eskatu eta jarraipena egin.

E.3.3.2. Kontrolik gabeko isurpen puntuek sortzen dituzten arazoek konponketa gestionatu (industrigunean, Laskibar atzeko partean, Euskal Forging atzealdean...).

E.3.3.3. Irurako biztanleen artean hondakinen kudeaketa zuzena emateko sentsibilizazio kanpainak garatu.

E.3.3.4. Tolosaldean zabor biltzea mankomunitateak martxan jarri eta kudeaketa sistema hobetzen jarraitu (edukiontzien banaketa antolatu,.....)(*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.5. Eskualde mailako informazio kanpaina bat burutu, Mankomunitateak eskaintzen dituen zerbitzu guztien berri emateko eta sektore ezberdinetan jardunbide egokiak bultzatzeko (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.6. Enpresak informatu eta sentsibilizatzeko ahalegin berezia egin eta industriguneko hondakinak enpresa baten bidez biltzeko aukerak aztertu. (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.7. Eskualdean bigarren Garbigunea Ireki (Tolosako San Blas) (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.8. Konpostajearen esperientzia pilotua martxan jarri eta jarraipena egin (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.9. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Tolosaldeko Mankomunitateak Gipuzkoako Merkataritza Bazkondearekin duen hitzarmena mantendu (*Tolosaldeko Mankomunitatea*)

E.3.3.10. Tolosaldea Garatzeni betelanearako azpiegitura amankomuna sortzeko aukera azter dezala eskatu (*UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen*)

P.3.4. Hiri inguruko kalitatearen hobekuntzarako programa

E.3.4.1. Hiri altzarien mantentzea hobetu eta pixkanaka berritzen joan.

E.3.4.2. Berde gunek handitzera, sortzera eta mantenua hobetzera bideratutako ekintzak garatu, eta era berean errekurtsioak handitu.

E.3.4.3. Udalerriaren mugak ondo zehaztu eta markatu, herri terrenoak eta partikularrak zeintzuk diren argi utziz, batik bat mendialdean.

E.3.4.4. Kaleak gutxiago zikintzeko neurriak hartu

- a) Leku publikoetan zakur gorotzekin erlazionatutako araudia betetzeko neurriak hartu.
- b) Gurasoen jarrera eredugarria izan dadin bultzatu, hurrek gutxiago zikintzeko intentzioarekin.

E.3.4.5. Udalerrak pairatzen duen zarata murrizteko pantailak ezartzea Foru Aldundiari eskatu, landaredia ere erabiliz.

E.3.4.6. Animaliak izan eta babestearen araudia betetzen dela bermatu.

E.3.4.7. Udalaz kanpoko zerbitzu publikoak herritarren benetako beharrei egokitu.

LE4. BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BABESTU ETA UDALERRIKO GUNE ETA ELEMENTU ESANGURATSUAK EZAGUTARAZI

P.4.1. Bioaniztasuna eta paisaia babestu, berreskuratu eta ezagutarazteko programa

E.4.1.1. Lurzoru industrial eta egoitzetarako lurzoruen arteko errekastoaren azalera eta gune berdea sortzea baimenduko duten neurriak aurrera eramateaz gain, tarte horretako erreketo landarediaren ingurumen errestituzio eta hobekuntza bultzatu.

E.4.1.2. Fauna eta landarediaren ezagupena, natura eguna, Irurako mendira irteerak, eta oro har Irurako natur aberastasuna ikastolako haurrek ezagutu eta balora dezaten ekintzak burutu.

- a) Herriko zuhaitzak, hegaztiak, ugaztunak etab. ezagutarazteko inbentario bat burutu eta plazaratu.

E.4.1.3. Herriko gune natural interesgarriak identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman, herritarrek ingurune naturala hobeto ulertu eta balora dezaten.

E.4.1.4. Ibaiko landaredian eta ibai-ertzetan geratzen diren hondakin ugari garbitzeko ekintzak garatu.

E.4.1.5. Herrian ondo kontserbatutako zuhaitz helduen babesa bultzatu.

E.4.1.6. Irurako Loatzo mendia zaindu, babestu eta ahal bada Loatzo eguna berreskuperatu.

E.4.1.7. Aiztiko iturria birsortzeko eta egokitzeko neurriak hartu.

E.4.1.8. "Andre Leiza" eta "Sorgin-Zulo" kobazuloen balore naturalak ezagutu.

E.4.1.9. Lurzoru publikoetan zuhaitz eta zuhaixka autoktonoaren landatzea sustatu, kanpoko landarediaren ordeztu.

E.4.1.10. Oria ibaiaren ingurumen errestituzio integralaren alde egin, balore natural handiko eremu bat berreskuperatzeaz gain biztanleriarentzat elkargune eta aisiarako espazio bat bihurtu. (*UT21 Ernioaldea*)

- a) Ibai ertzeko landaredia berreskuperatu (Haltzadi kantabriarra).
- b) Ubidean zehar arrainen migrazioarako aurkitu daitezkeen oztopoak ezabatu.
- c) Sedimentuen garbiketa bultzatu.
- d) Harri-lubeten naturalizazioa sustatu.
- e) Espezie exotiko inbaditzailearen zabaltzea ekidin.

P.4.2. Ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa babesteko, berreskuratzeko eta ezagutarazteko programa

E.4.2.1. Herriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoa identifikatu, zerrendatu eta ezagutzera eman Irurako historiaren eta herriko ezagupen zabalagoa jasoko duen informazio indartuz.

LE5. HERRIKO MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEekin ASE

P.5.1. Herriko irisgarritasun baldintzak iraunkortasun irizpideak jarraituz hobetzeko programa

E.5.1.1. Herriko zenbait espaloi irisgarritasun irizpideetara egokitzeko lanak burutu (Plaza, industrigunean, Pello Arresen, etab.).

E.5.1.2. Irisgarritasuna hobetzeko ekintzekin jarraitu (eraikin publikoetan)

E.5.1.3. Irisgarritasun arazokoak lehen pertsonan pairatzen dituztenen beharrak jasotzeko mekanismoak ezarri.

P.5.2. Mugikortasun iraunkorrerako plana egin eta gauzatzeko programa

E.5.2.1. Udaltalde mailako Mugikortasun Plana burutu eta honi lotutako hainbat ekintza martxan jarri: *(UT21 Ernioaldea)*

- Mugikortasun Iraunkorrerako Herri Batzarraren sorrera bultzatu
- Eskualdeko Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Batzordearen sorrera bultzatu
- Mugikortasun Iraunkorraren aldeko hitzarmen bat sinatu
- Udaltaldeko industrialdeetako mugikortasuna aztertu eta landu

P.5.3. Garraiobide iraunkorrakoak bultzatzeko programa: garraio publikoa, bizikleta, oinezkoa

E.5.3.1. Anoeta eta Irura lotzen dituen zubiko espaloia eta zoladuraren egoera hobetu.

E.5.3.2. Kale Nagusiko garraio intentsitatea murriztu eta oinezkoentzako kale atseginagoa izateko ekintzak gauzatu.

E.5.3.3. Autobidean aurkitzen diren geltokien egoera hobetzeko gestioak egin (ordutegia ipintzeko SSTSSri eskatuz, segurtasuna bermatuz...)

E.5.3.4. Tolosatik Donostiara doan autobusa Iruran sartzeko gestioak egiten jarraitu.

E.5.3.5. Villabonara doan ibai ertzeko ibilbidea oinezko eta bizikleta erabiltzaileentzako egokitzeko Foru Aldundiaren proiektuaren jarraipena egin.

E.5.3.6. Industrigunera bizikletaz iristeko ekintzak aurrera eraman.

E.5.3.7. Irurako plaza ingurua oinezko-gune bihurtzeko pausuak eman.

E.5.3.8. Oinezkoen ibilbideak hobetu

E.5.3.9. Kale nagusian ikastolara joateko orduetan segurtasuna bermatzeko pertsonaren bat ezarri (udaltzaingoa, gurasoak, andereñoak...) edota semaforoak ipintzea eskatu

E.5.3.10. Intermodalitatea bultzatu Gipuzkoa Foru Aldundiarekin elkarlanean: *(UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia)*

- Udaltalde mailako autobus zerbitzua osatzeko gestioak egin
- Trena eta autobusaren arteko loturak hobetzeko gestioak egin

E.5.3.11. Eskualdeko bidegorri sarea osatu (*UT21 Ernioaldea / Gipuzkoak Foru Aldundia*)

E.5.3.12. Bide-hezkuntza saioak ikastetxeetan antolatzen jarraitu: (*UT21 Ernioaldea*)

- Prestakuntza
- Beharrezko materiala erosi

E.5.3.13. 16 urtetik aurrerako ikasleei zuzendutako ikasketa zentroetara joateko garraio motaren bat sustatu. (Ibaetako unibertsitatera joateko, adibidez) (*UT21 Ernioaldea*)

E.5.3.14. Autoa konpartitzea sustatu, batik bat lantokietara eta ikastetxetara heltzeko (*UT21 Ernioaldea*)

E.5.3.15. AHT proiektuaren inguruko informazio eta komunikazio zabal, garbi eta ulerterraza eskatu. (*Tolosaldea Garatzen*)

E.5.3.16. AHT sortu ditzakeen inpaktuak ahalik eta murriztenak izatea bultzatu, eskualdean sortu dezakeen barrera efektua saihestuz. (*Tolosaldea Garatzen*)

P.5.4. Motordun ibilgailuen zentzuzko erabilera bultzatzeko programa

E.5.4.1. Herri barruko abiadura mantsotzeko seinaleztapena hobetzeko eta dispositiboak ipintzeko gestioak egin Foru Aldundiarekin.

E.5.4.2. Autoak herriko espaloi gainean eta zebra bideen erdian aparkatzea saihestu (adib.: garabia, isunak...).

E.5.4.3. Aparkalekuen zentzuzko erabilera baten alde egin (garajeak betez, autoen salmentarako herriko aparkalekuen erabilera erregulatuz).

E.5.4.4. Sentikortze programen garapena ondorengo gaietan: (*UT21 Ernioaldea*)

- a) Trafiko arazoetan norberak duen arduraren inguruan kontzientzia hartzea.
- b) Ibilgailu pribatuaren erabilerak aparkaleku faltaren arazoan duen eraginaz ohartaraztea

P.5.5. Bide sarea hobetzeko programa

LE6. HERRITARREKIKO KOMUNIKAZIOA ETA HERRITARREN SENTIKORTZE ETA PARTEHARTZEA HOBETU

P.6.1. Udalak herritarrekiko duen komunikazioa hobetzeko programa

E.6.1.1. Udala eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko bide berriak aztertu eta martxan jarri

- a) Udalak abian jartzen dituen egitasmoak ezagutarazteko aldizkari edo triptiko bat argitaratu.

E.6.1.2. Irurako web gunea eguneratu eta informazio erabilgarria eskaini.

E.6.1.3. Udalerrian zuntz optikoa ezartzea eskatu

E.6.1.4. Tokiko Agenda 21en inguruko komunikazioa aurrera eraman. *(UT21 Ernioaldea)*

E.6.1.5. Eskualde mailako Tokiko Agenda 21 web gunea bultzatu. *(UT21 Ernioaldea)*

P.6.2. Herrian garatzen diren ekintzetan herritarren partehartzea areagotzeko programa

E.6.2.1. Udalerriko onurarako izan daitezkeen ekintza ezberdinak gauzatzeko Auzolana bultza

E.6.2.2. Tokiko Agenda 21en barnean martxan jarritako herritarren parte hartzeari jarraipena eman

E.6.2.3. Udalerriko elkarteak indartu eta berriak sortzeko erraztasunak jarri.

E.6.2.4. Erabakiak hartzeko prozesu ezberdinetan herritarren, giza eragileen eta udaletxeko egituraren parte hartzea bultzatu eta sustatu.

E.6.2.5. Gizarte sektore ezberdinetara zuzendutako hezkuntza programak diseinatu eta garatu partehartzea sustatzeko. *(UT21 Ernioaldea)*

P.6.3. Iraunkortasun sentikortzea sustatzeko programa

E.6.3.1. Iraunkortasun eta gizabidearekin zerikusia duten gaien inguruko kontzientziazio kanpainak gauzatu, Udaltaldez kanpoko gainontzeko herriekin koordinatuz, batik bat, Tolosarekin. *(UT21 Ernioaldea)*

- a) Ur kontsumo arduratsu bat sustatzeko sentsibilizazio kanpainak bultzatu
- b) Energiaren kontsumo iraunkorra sustatzeko sentsibilizazioa kanpainak sustatu.
- c) Ibaiko landaredi eta ertzetan metatzen diren hondakin ugariren arazoa saihesteko herritarren sentsibilizazioan ekintzak garatu eta garbitzeko ekintza garatu

LE7. UDAL KUDEAKETA HOBETU IRAUNKORTASUN IRIZPIDEAK TXERTATUZ

P.7.1. Herrian garatzen diren jardueren ingurumen kontrolerako programa

E.7.1.1. Sailkatutako jardueren eta lanen ingurumen kontrola ziurtatu jarduera eta irekitze lizentzien emate, eguneratze eta jarraipenaren bidez.

E.7.1.2 Udalerriko ekonomia jardueretan ingurumen jardunbide egokiak sustatu eta ingurumen ziurtapenaren inguruko informazioa eskaini.

E.7.1.3. Lurzoru poluituen bilakaeraren eta potentzialki poluitzaileak diren jardueren jarraipena egin.

E.7.1.4. Basogintza aktibitateak sortu ditzakeen inpaktuak murrizteko neurriak hartu.

- a) Udala eta baso-zaintzaileen arteko koordinazioa hobetu
- b) Udalaren pisten inguruko arautegia betearazi, basogintza jardueren ondorioz sortzen diren hondakinak hobeto kudeatuz (olio latak, sasi pilaketa...) eta pistak hormigonatzea saihestu.
- c) Egurra ateratako eremuan birlanaketa egokia burutzea sustatu.

P.7.2. Udal kudeaketan iraunkortasun irizpideak txertatzeko programa

E.7.2.1. Iraunkortasun prozesuaren jarraipen, kontrol eta planifikaziorako udal organo baten finkapena.

E.7.2.2. Ingurumen Kudeaketa Sistemak ezartzen joan udal zerbitzu eta eraikinetan.

E.7.2.3. Udal bulegoei begira, ingurumen jardunbide egokiak diseinatu eta ezarri.

E.7.2.4. Jarduera kulturalen planifikazio eta garapenean ingurumen irizpideak barneratu (txosnak, tabernak,.....).

E.7.2.5. Udal erosketan iraunkortasun irizpideak barneratu: produktuak identifikatu eta ezarriko diren iraunkortasun irizpideak definitu.

E.7.2.6. Enpresa eta zerbitzu ezberdinen udal kontratazioetan iraunkortasun irizpideak barneratu.

E.7.2.7. Planeamenduaren garapenean iraunkortasun irizpideak barneratu eta paisaiaren babesa - hirigunean zein ingurune naturalean - kontutan edukitzeko balore gisa hartu proiektu oro planifikatu eta burutzerakoan.

E.7.2.8. Udalak egingo dituen obra guztietan zein udal langileriaren artean segurtasun neurriak beteko direla bermatu.

E.7.2.9. Politiko eta teknikarientzat iraunkortasunarekin lotura daukaten gaietan prestakuntza eskaini (*UT21 Ernioaldea*)

P.7.3. Instituzioen arteko koordinazioa bultzatzeko programa

E.7.3.1. Tokiko Ekintza Planen jarraipena eta Udaletan iraunkortasun irizpideak txertatzeko Udaltaldearen Batzorde iraunkorra finkatu. *(UT21 Ernioaldea)*

E.7.3.2. Tolosaldea mailako herrien artean proiektuak diseinatu eta martxan jartzeko helburuarekin laguntza eta baliabideak lortu ahal izateko Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta entitate publikoekiko (IHOBE, EVE...) informazio/komunikazioa mekanismoak indartu. *(UT21 Ernioaldea)*

E.7.3.3. Tolosaldea Garatzen erakundeak herri txikienganako eskaintzen duen atentzioa areagotu eta indartu. *(UT21 Ernioaldea / Tolosaldea Garatzen)*